

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ELTZIEGOKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eltziegoko Udalaren 2006ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, dirulaguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Udalaren jabetzako orubea eta bertan eraikitako eraikina orube pribatu batekin trukatzek, 2006an onetsi eta 2007an eskrituran jaso zenak, 31.049 euroko ondare galera ekarri du trukaturako ondasunen arteko balio aldearen ondorioz, ez baitzitzaien norbanakoei zegokion konpentsazio ekonomikoa eskatu.

Langilerari dagokionez, HKEEk azaleratu du administrari laguntzaile baten deialdiak berdintasun printzipioa urratu duela. Berebat, 5 langileren aldi baterako kontratazioak publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu ditu.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak dio Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua urratu dela; lau kasutan premiazko izapidea ezarri delako, legeak horretarako ezartzen dituen zioak bete gabe eta horrek publizitate eta lehia printzipioak urratzen ditu. Berebat, beste espediente batean aipaturako legezko testua urratu da, kontratuaren gaineko dagozkion aldaketak izapidetu ez direlako. .

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du aurkezpen eta edukiari dagokionez eta bi akats azpimarratu ditu, lehena Udalak ibilgetuko gaien

ondasun zerrenda eguneraturik ez izatea eta bigarrena, zorpetutako hainbat eskubide eta gasturi dagokionez, ekitaldi itxieran erregistratu gabe zeudenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio arloetan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez adierazi da nahiz 2006ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikin negatiboa erakutsi duen inbertsioak ohiko sarrera-iturrien bidez finantzatzerik izan ez duelako, egoera zuzendu egin dela 2007an inbertsio maila murriztu egin baita bestelako zorpetzerik erabili gabe, ondare-ondasunak besterentzeko politikari eutsi baitio eta sarrera fiskalen tarifa eta tasa zergagarriak gehitu egin baititu.